



Laura Mintegi

Tren ugari eta abiadura txikia

1999ko urte honen amaieran kulturaren munduan zerbait azpimarratu behar izango bagenu, giro orokorrari dagokiola behinik behin —hau da, gertakizun edo ekitaldi puntualen gainetik begiratuta—, zerbait amaitzen ari delako sentsazioa da. Urtearekin batera garai bat ere amaitzen ari delako susmoa dugu, nonbait. Eta zaharraren amaierarekin, garai berriaren hasieran gaudelako irudipena antzematen da arlo guztietan, ez soilik kulturaren, baizik eta baita politikan, komunikazio munduan, medikuntzan, estatu antolamenduan, lan harremanetan, merkatu modu eta legeetan, eta abar eta abarretan ere.

Barnerarazi nahi zaigun ideia da trenak —tren batzuk— martxan ari direla jartzen eta tren horiek hartu ezean jokoz kanpo geldituko gara, anakroniko, desfaturik alegia. Bestera esanda, trenaren barruan ez doana hutsaren hurrengo izango dela datozen urteetan. Eta adi! Honezkero badakigu jakin —historialari batzuren lan maltzurri esker batez ere—, ez dagoela ideologikoki zama handiagoa ezartzen duen egiterik periodizatzeko erabakitzen diren mugarriak aukeratzea baino; garai baten amaiera eta hurrengoaren hasiera erabakitzeko *zer* aukeratu eta *hori* izango da garai berriari kutsu ideologikoa emango dion zera, aipatu gertakizuna erabakigarritzat hartu baitugu, garai berriari hasiera emateko beste. Periodizaziorako mugarriak aukeratzea, beraz, egintza ideologiko garrantzitsua da, eta arlo guztietan du eragina, kulturaren arloan, arlo politikoan ala ekonomikoan izan.

Aurreko hau guztia kontuan izanik, tentu handiz ibili beharko dugu esatean tren bat martxan jarri dela eta beraren barruan sartzea ezinbestekoa izango dela datozen urteei begira. Halaxe dela uste badugu, bene-benetan pentsatzen

badugu gertakizun erabakigarria jazo dela edozein arlotan, halaxe esan beharko da bai, baina hiru 9en eta ondorengo hiru 0en indar mediatikoa ez dadila izan arrazoi nahikoa periodizazioak egiteko unean. Zenbakiak sor dezaketen lilura handia da, egia. Edonola ere gogora dezagun kotxeko kilometro-zenbatzaileak halako buelta bat ematen duenean, berehala pasatzen zaigula lilura, bidean segitu ahala, markagailuak 1, 2, 3 eta hurrengo kilometro guztiak ere markatzen dituela ikustean, zenbaki borobilen magia apurtuz.

Politikari dagokiola denborak esango digu Lizarra-Garaziko trenak aro berria ezarriko duen ala ez. Oraindik zein geltokitara eramango gaituen ez badakigu ere, hartu asmo zuen ibilbidean sinetsi nahi genuenok (argilunak ikusi arren, aitor dezadan) pentsatu behar dugu beraren existentzia soil a ere periodizatzeko arrazoi nahikoa dela. Su etenak ere, berez, mugarrizateko funts nahikoa daukala ematen du, halaxe pentsatu nahi dugu behintzat, baina, egiatan, ondorengo praktika politiko eta kulturalak markatu beharko dituzte aroaren berritasuna eta ezaugarrien ezberdintasuna. Data soil batek ez du garaia bereizten, honi lotuta balore berriak ezartzen ez badira.

Gerra zuzenaren garaian zer-nolako kultura, zer-nolako literatura egin dugun jakin badakigu. Ez dakiguna da bestelako kultura ekoizteko eta bestelako literatura idazteko gai izango garen.

Ikus-entzunezkoen tren a

Politikagintzan trenak aipatzen diren bezalaxe, kulturari dagokiola ere beste tren batzuk aipatzen dira egunotan eta, politikan gertatzen ari den legez, ikus-entzunezkoen trenean ere ez da sumatzen behar besteko abiadura: interneteko tren a geldiezina da eta euskal kultura oraindak dago txarteldegian duda-mudatan, txartelik erosi behar duen ala ez jakin gabe. Kable bidezko telebista ate joka dugu eta, bitartean, herri telebistak bizirauten ari dira erakundeek ezarritako marjinalitatean, eta gure telebista ofizialak ez du oraindak asmatzen eskaini beharko lukeen ereduaz.

Gaztelaniazko katean nagusitu ziren irizpide berberak inportatu dira orain euskarazko katera: txapelketa arinak, magazin lotsagabeak (zentzu bietan), folklozez beteriko emanaldiak... Estatuetakotelebitetan jaun eta jabe diren telebista larrosek leku eroso aurkitu dute ETBn: gaztelaniazko katean forma eta eduki bera mantentzen dute (azken finean hizkuntza bera erabiltzen dute metropolian eta kolonian), eta euskarazko katean forma eta hizkuntza aldatzen dute baina (harrapazan/k!) edukia ia ez dute aldatzen. Troiako zaldia etxe barruan dago, eta botoia saketzen dugun bakoitzean kolonizatzaileak inbaditu eta gure sofan jesartzen dira. Alde bakarra da, eta ez da txikia, Ullises eta greziarrek troiarrak bereganatzeko hamar urte behar izan zutela, eta erdal kulturari segundo gutxi batzuk nahikoak zaizkiola gureraino heltzeko.

Horrek guztiak eragina izan behar du euskal kosmogonian, halaberrez.

Edonori esanda inork ez luke sinetsiko telebista nazional batean oraindik orain ez duela presentzarik, (eta urtetako kontua da gainera) mundu osoan bakarra —eta berea— den hizkuntza baten literaturak. Ekologismo hutsagatik balitz ere euskal literaturari espazio berezia eskaini beharko lioke nazionala izan nahi duen ikus-entzunezko komunikabide publiko bakarrak. Ala ez?

Urte honen amaieran gero eta ugariagoak dira irakurzaletasun eskasiaren aurrean arduraturik entzuten diren ahotsak. Kritikari eta editoreek datuekin baieztatu dute gainerakoon susmoa: gero eta titulu gehiago argitaratzen dira, baina gero eta ale gutxiago inprimatzen da, liburu berriak biltegietan goroldioa biltzen geldituko ote diren beldur.

Irakurzaletasuna zuzpertzeta eta tiradak handitzea duite helburu bai editoreek (gainbizitzeko) bai erakundeek (aho txikiaz), eta erru-iturriak bilatu nahian eskolara bueltatzen dira begirada guztiak: irakasleak dira errudunak lehen instantzian, sistema ere erruduna da sakonean, eta finean, gurasoak dira huts egiten dutenak zenbait balore ez transmititzeagatik. Baina hezkuntza sistemak horren inertzia handia duenez... ez dago epe laburrean aldatzerik. Zer egin? Zer dago ezer egiterik.

Ikus ditzagun hedabideak. Noiz ematen da literatura-
ren berri? Literatura ez da existitzen ETBn. Irratietan bi
saio txiki ditu, eta egunkarietan (salbuespenak salbu, dena
esan behar da) bakarrik existitzen da albistea denean, hau
da, liburua atera berria denean edo idazlea beste zereginen
batean dabilenean. Kazetariak, gainera, irakurri gabeko li-
buruaz egiten ditu galderak. Nola piztu zaletasunik? Mira-
ria litzateke norberak ez duen zerbait transmititu ahal iza-
tea! Errua, beraz, kazetariena da? Ez, beraiena soilik ez, bai-
na erantzukizun itzela dute balore transmisioan eta jakin-
mina pizteko unean. Motibazioa da landu beharreko arloa,
eta motibazioa, neurri handi batean, informazio oparo, se-
rio, erakargarri eta kritikoa bidez lortzen da. Literatura
(irakur bedi pintura, artea, eskultura, etab.) ezagutz
maitatzen da, ulertzeko gakoak emanez, baliabidez azalduz,
norberak gozatuz eta gozamen hori komunikatuz. Beraz, gabe-
ziak aipatzen hasita, erantzukizun handienetarikoa ETB-
rena da. Nik dakidala, azken urte hauetan (urte asko) literatu-
rari buruz teleaio bat egiteko sortu (eta hil) diren saialdi
guztiak ekoiztetxe pribatuetan jaio dira. Kultur-kontsumi-
tzaileen trena ere galduko dugu martxan honetan.

Intelektualak geltokian

Ez dakit nire begitazioak diren edo halaxe pentsatzeko
funtsik dagoen, baina iruditzen zait urte honetan berriz
ere hasi dela aipatzen, ahopeka bada ere, aspalditxoan go-
ri-gori eta geroago guztiz amatatuta gelditu zen gaia, pen-
duluaren legea betearaziz. Intelektualen paperaz ari naiz.

Jose Saramago eta Günter Grass azken bi Nobel Sarien
nortasun eta ibilbideak agian lagundu dute zenbait gai
plazaratzen. Ez litzateke harritzekoa izango urte gutxiren
epean (laster nire irudiko) berriz ere gure artean garai bate-
ko eztabaidak piztea, baina argi dago gauzak ez direla ko-
katuko orduan kokatzen ziren puntu berean, eta seguruen
eztabaidaguneak aldatuko dira: pendulua joan eta pendu-
lua etorri, gero eta ibilbide laburragoa egiten du sokak.

Horren arrazoia izan daiteke —agian— zenbait pun-
tutan adostasun gutxienezkoa lortu delako (lehenengo

konpromisoa norberak egindako lanarekikoa da) edo beste zenbait arazo interesik gabekoak direlako (literaturak ez du masa mugimendurik irauliko). Beste zenbait puntutan, ordea, eztabaida oraindik sakonki planteatu gabe dago, eta horiei ekin beharko zaie noizbait. Esate baterako, zein da intelektualen funtzio soziala, norekiko eta zerekiko izan behar da konpromisoa, kritika zeri eta zergatik egin, nolako jarrera erakutsi boterearekiko, zapalduetik elkartasuna funtsezkoa al da, noraino hartu behar du parte egunerokotasun politikoan. Eztabaida sakonetik ere abia zitekeen, eta abiatuko da: idazleak zein puntutaraino dira intelektualak, edo, bestera esanda, idazleek bereganatu behar dute —ala ez— intelektualaren zeregina.

Saramago eta Grass ez dira literaturaz mintzatzen beren agerpen publikoetan. Lehenari Goethe Institutuaz halakoak eta bi botatzen entzun genion Bilbon, eta bigarrena Espainiako gerra zibilaz aritu zen Oviedon sari bat jasotzera joan zenean. Hori da beren zeregina? Eta beraiena ez bada, norena da?

Euskaldunok aukera paregabea dugu zortean tokatu zaigun garaian bizi ahal izatean. Bidegurutze batean gaude eta aiduru dago populazioa, gu guztiak gaude aiduru, egoerak nondik joko duen esperoan. Une honetan denak berdinak garela ematen badu ere, denak ez gara berdinak, eta denok ez dugu egoerarekiko jarrera bera.

Ate bat dago guztien begi-bistan eta ezberdin joka daiteke egoera horren aurrean: zain egon atea zabaldu artean eta zabaldutakoan ikusi zer egin (dagoenaren arabera), bultzatzea egin behingoz alde baterantz zabal dadin, ala, azkenik, atea dagoenik kontuan ez hartu eta nor bere etxean bizi. Zein da intelektualen papera bidegurutze honetan?

Atal honekin amaitzeko, eta intelektualak alde batera utzirik, bi gai izan dira pozgarriak aurtengo urtean zehar, bata idazle gazteen koskortzea, eta bigarrena itzulpengintzak hartu duen abiadura. Bi kasuetan ordea, txanponaren alde iluna ere ikusi behar dugu. Lehen kontuan, orain bizpahiru urte idazten hasi eta gerora mantendu diren idazle gazteen artean ez daude, dagoeneko, hasiera batean zeuden emakume gazteak. Bigarren kontuan ere akats la-

rria ikusi ahal dugu, zeren itzulpengintza indartu bai, indartu baita, baina norabide bakarreko errepidean: erderetatik euskarara itzultzen da oparo eta, bitartean, euskaratik erderetara tantaka batzuetan, eta gehienetan tantarik ez da itzultzen. Eta hori ez da ona. Areago, akats horrek gure literatura txokotik ateratzea oztopatzen du, eta honela ez dago trenera igotzerik.

Trenbideari begira

Trenbideari begira jarrita, merkantzi trenak, bidaiari trenak eta abiadura handiko trenak ikusten dira pasean 1999 urtean zehar.

Abiadura handiko trenen artean, esaterako, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak iazko abenduan Bai Euskarari lemapean martxan ipini zuena dugu, nire ustez helmuga onera eramango gaituena, Luis Fernandezek aldizkari honetan bertan (112. zb.) egiten zituen kritika funsbakoak gorabehera. Denborak esango du baina, bere momentuan esan zen bezala, uste dut euskararen korpusari 1968 urtea izan zitzaiona, estatusari izango zaizkiola 97-99 urteak Kontseiluari eskerrak.

Bidaiari trenen atalean sartuko nituzke idazleen eta musikarien artean aurten egin diren saio interesgarriak. Koldo Izagirre, Joseba Tapia, Mikel Markez, Pako Aristi, Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, Bide Ertzean, Zantztoa Taldea, Igor Estankona, Erramun Landa (irudiaz) eta Edorta Jimenez aritu dira diziplinartekoak ziren emanaldiak eskaintzen han-hemenka, eta horrek beti bizitasuna adierazten du, estetika konpartitua, ideien adostasuna, elkarlanerako joera. Edonondik begiratuta positiboa da.

Azkenik eta oraindik merkantzi trenaren abiadura baino hartu ez duena —eta zama handiegia garraiatuz—, euskal unibertsitatearen gaia dugu, neroni interes berezia sorrarazten didana. Aurtengoa da UEU, Ikastolen Elkarte, *Euskaldunon Egunkaria* eta Euskalgintzako beste kolektibo batzuek euskal unibertsitatea egiteko proiektua dutelako albiste. Asmoa zaharra da, baina aurten lehenengoz pla-

zaratu da proiektua sasigorpuztua. Hala bedi! Gauza gehiegi esan nahi eta hitzak tropelka datoz, ahoskatu ezinean. Beharrezkoa da. Funtsezkoa da. Premiazkoa da. Herri honek ez du behar duen unibertsitatea. Zaila da baina egin behar da, beste guztia egin den bezala, borondatez, militantziaz.

Amaitzeko zilegi bekit hausnarketa pertsonala egitea. Txikitako gogoramen on-onen artean ditut Gasteiztik Lizarrarako trenean emandako ordu luzeak, Kanpetzu, Maeztu eta beste hainbat herri zeharkatuz. Biziki maite nuen eta dagoeneko hilik dagoen tren zahar hark lagundu nau artikulu hau idazten. Berau izan dadila Lizarrarako tren hari nire omenaldi xumea. ♣



Allande Sokarros

Tradizio txar horiek!

Euskaldunon Egunkaria-ko azken orriko zutabe batean idatzi nuen behin artikulutxo bat nahiko (eta nahita) bortitza eta «Faxistak» izenburua jarri nion. Horretan izan nituen aipagai Hondarribia eta Irungo Alardeen inguruan egondako gertakari lotsagarriak, hots, «betiko Alardearen» edo «tradizioko Alardearen» aldekoek izandako jokaera eskandalagarriak. Faxistak! Hitz oso gogorra dela ondo dakit eta zama historiko handia daukana Hego Euskal Herrian, nola ere beste zenbait herritan, erregimen faxistak ezagutu eta pairatu egin dituztenak. Hargatik, berriz ere diot nahita aukeratutako hitza izan zela eta ez arinkieriaz botatakoa.

Ezen, zer ote dira faxistak, besteen hitza, iritzia, pentsakera, jokaera eta oro har libertatea bera onartzen ez dutenak baizik? Niretzat, faxismoa da ziur egotea neuk bakarrik daukadala arrazoa, nik pentsatu dudanarekin bat ez daudenak isilarazi behar direla, nirekin ados ez direnak